

bidegileak



Jesus Maria Leizaola (1896-1989)

Egilea:

JOSE LUIS LIZUNDIA

Jatorria

Leizaolatarren habiaren berri ematea onuragarri da, zeren eta hortik atera daiteke Bidegile honen euskaltasun jatorria. Gipuzkoako Beterri eskualdean aurki daitezke Jesus Maria Leizaolaren sustrai hurbilak, aita, Jose Zakarias Leizaola Ugalde usurbildarra, zehatzago esateko, Zubieta auzoko *Barazar* baserrikoa; ama, Candida Sánchez Martiarena, donostiarra, Parte Zaharreko San Jeronimo kalean sortua; Hernani ere aipatzen zuen berak aitona-amonaren arteko ezagutza-harreman lokarri. Beste ahaideak



Jesus Maria Leizaola Sánchez (1896-1989)

Nafarroa eta Errioxakoak izan arren, Beterrin, Donostia-Hernani-Usurbilen, amonarekin, lotzen zuen mendez mendetako oinetxea.

Aita litografoa izan zuen, hobeki esan, irudigile-litografoa, langintza hau Bartzelonan ikasi zuelarik eta anaiarekin litografia dendan jarri Donostian. Hiriko semea zen, beraz eta han jaioko zen 1896. urteko azaroaren 7an.



Errepublikako Gorteetako euskal diputatuak, Gernikako kaleetan (1931-07-12)



Errepublikako Gorteetan «Minoria Vasco-navarra»-ko diputatuak. Zutik: Gortari, Egileor, Aizpun, Basterretxea, Dz. Arévalo, Robles Arangiz, Agirre, Oreja; eserita: Pikabea, Horn, Pildain, Beunza, Leizaola eta Urquijo

Ikasketak eta lanbideak

Gipuzkoako hiriburuan hasi zen eskolan, gero, Baztan ibarrean, Lekarozen, orain-tsurarte kaputxinoek izan duten ikastetxe famatuan batxilergoa egin zuelarik. Valladoliden Zuzenbidea ikasi zuen, lizentziatura 18 urterekin amaituz.

Ikasketak burutu ondoren, lehendabiziko lana Gipuzkoako Diputazioan lortu zuen letradu gisa. Bigarrenkoz, Bilboko udaletxean, 1919-1923 tartean, Ogasun sailean eta, itzulian, berriaz, Gipuzkoako Plazara, oraingoan, idazkari legez. Azken lanpostu hau gordeko du, nahiz eta herri hautetsi bezala, hutsarteak izan.

Idazle, ikerle eta kazetari (gera aurrean)

Oso gazterik hasten da idazten. Prentsan, 1921ean, *Argia* astekarian agertu ziren bere lehen artikulua, «Marruekos'eko guda» sorta batean, ez bakarrik, kazetari gisa, hango berriak komentatuz, baizik eta bere ikerle sena agertuz, Aita Lertxundik mairuen hizkuntzaz, alegia, El Rif-eko bereberreraren dialektoaz egindako lanez mintzo da. Hogei ta bost urte egin omen baitzituen oriotar fraide horrek, gaurko Ipar Marokon, Melilla inguruan. Lan horiek aintzat hartuta hango toponimiaz eta patronimiaz idazten du Lei-

zaolak, aipamen eta konparaketa interesgarriak eginez. Aldizkari berean, bi urte geroago, «Ogasunak, jabea il ondoren» idazlanean, bere legelartasuna erakusten du euskaraz horrelako gaiak oso gutxi lantzen ziren garaian. Gerotxoago, 1929-1931 bitartean, hots, «Dictablanda» deitu garaian, *Euzkadi* egunkarian jarraitu zuen bere saioetan, polemikak barne, zenbait etimologia zirela eta «Txadon-Zaya», Bernardo Garro *Otxolua* eta besterekin. Bere kontura egindako ikerketak ere argitaratzen ditu, hala nola Akitaniako hilerri izenez, Schultenen teorien inguruan, hain zuzen, «Akitania zarreko euskal-izenak» egindako hiruzpalau artikuluetan, zenbait euskaltzaleren biografiez eta abar.

Garai eta egunkari bereko idazlan mordo bat dakargu hona, zeren eta liburuki hau, Leizaola politikari baino gehiago, euskalari gisa aztertzea dagokigu. *Euskal Olertiyan* izeneko artikulua bilduman agertzen du bere benetako zaletasuna, alegia, euskal literatura ikertzea. Hara hor adibide eta izenburu zenbait: «Euskal-olerkiak», «Zortzikoa», «Euskal zortzikoa», «Zortziko-aundiaren ondorengoak», «Zortzikoa dala eta, azken oarrak», «Zortziko aundiaren kideko zortzikoak», «Ahalpaldi terdi», «Olerkien neurri ta arauak», «Ahapaldi-erak», «Zortziko aundia», «Ezpatadantzakoak», Luis Jauregi *Jautarkol* poetari buruzko kritika literarioa eta beste.



Herri agintariak Bizkaiko Diputazioaren aurrean, Jaurilaritza sortu biharamunean (1936-10-08)



Eusko Gudarostea ikusatzan Bilbon: H. de la Torre, R. Laiseca, J. A. Agirre, J. M. Leizaola, J. Etxebarria Novoa eta R. Aldasoro

II. Errepublikan bete-betean politikan sartu baitzen, bere ikerketa eta literatur zaletasunak utzi beharra izan zuela nabari da aztertzen baldin badugu orduko bere biobibliografia.

Euskaltzaindiaren lanak jarraitzen zituen, hizkuntza erakundeak hamar urte besterik ez zituen oraindik. Hara hor, 1929an, beraz, *Euzkadi* egunkarian idatzitako lan baten hasiera lekuko:

EUZKEL, EUSKERAREN ALDAKETAN.
Euskaltzaindiak bere azkeneko batzarrean Azkue jaunaren lan bat (ederra noski) eza-gutu omen du. Ta Bizkaiko euskeraren az-

keneko iru gizaldietako aldaketak aztertzen dituala esan digute.

Azkueren txostenaren ildotik, dirudienez, Busturia eta Markinako merindadeetako eskribau zen Simon Barrutiak idatzitako aipamenak aitzakiatzat hartuta Bizkaiko Batzar Nagusietako ahaldunen izenen etimologiaz dihardu, bidenabar, «h»-ari buruz, hau diolarik:

Beste askok oitura izan zuten bezela, izenen asieran h bat erasten du, itz askotan...Alperrikako oitura izan zalakoen artean ez nago ni. Nere ustez h orrek bere esanaia du...



Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa: «Kultura Batzordea» sortzea iragartzen duen Agindua

Probintziako hiriburuaren euskal kulturaren orduko mugimendua jarraitzen zuela bista-koa da. Askorekin harremanak zituela ere bere artikulugintza oparotik nabari daiteke. Bere euskara ere, purista izanik garaiko aber- tzale guztiena bezalaxe, ez zen «sabindarre- gia», gehiago izan zen jaioterriko eskualde-koa, Beterriko azpieuskalkikoa, alegia. Ezagutza horren adibide bat: Bitor Garitao- nandia gerra aurreko Donostiako *Argia* aldiz- kariaren sortzaile eta zuzendari izan zen zal- dibartarrari ere, hil bezain pronto eskaini zion nekrologikoak ere erakusten digu nola- ko harremanak zituen orduko idazleekin:

Bart arratsean il da apaiz jaun au, ezagutu ditugunen artean euskaltzaletasunean iño- ren atzetik jarri ezin ditekenez bat zan.

Lan hauek «Barazar» izenordeaz sinatzen zi- tuen, hots, Beterriko bere aitaren sortetxe-aren leku-izenaz, kasualitatez, Arratiako mendatearen berbera denaz. Artikulu horie- tan toponomastikarako zaletasuna adieraz- ten du.

1923 urtean kaleratu zen *Enciclopedia Hispa- no-Americana* ESPASAREN XXI. tomoan, hots, «España» hiztegi-sarreran datorren «Litera- tura Vasca» atala ere beronena dugu.

Politika eta kulturgintza uztarturik

1922an Eusko Ikaskuntzak Gernikan antolatu zuen Biltzarrean parte hartu zuen Leizaolak. Arbolaren ondoan kartel batekin euskal unibertsitatea eskatzeagatik, bera eta Ramírez de Olano, geroago, *Euzkadi* egunkariaren zuzendari izango zena, atxilotu zituzten eta oinez, guardiazibila zaldi gainean, animalia buztanari eskuak lotuta, Zornotzaraino eram zituzten. Hamalau urtera, geroago azalduko dugun bezala, bera izango zen hainbeste aldiz euskaldunoi ukatutako goi mailako ikasgoaren sortzaile.

1931n, II. Errepublika sortu berri, Gipuzkoatik Gorteetako diputatu hautatua izan zen, Konstituitzaile legegintzaldian partaide garrantzitsu izan zelarik. Ez goaz, gainontzeko bere politika alorretako aipamenik egiten, baina irakurtzekoa litzateke orduko «Diario de Sesiones» delakoa kultura eta hizkuntza gaietan, hala nola, Kataluniako Estatutuaren aldekoetan esandakoak. Jakingarriak dira 1934an, Euskal Estatutua Gorteetan aztertu zenean eta, Arabaren partaidetasunari buruz, Ramiro de Maeztu gasteiztar politikari eta idazlearekin —zeinek eraman baitzuen, jadanik orduan, ezker muturretik eskuin faxistarainoko igarobidea— izandako ezta-



Basurtuko ospitalea, zeinetan 1936an jarri zen lehen Euskal Unibertsitatea

baida. Bertan, historia, demografia eta komunikabideekiko arrazoiketez baliatu zen, Menéndez Pidal *Real Academia Española*-ko lehendakari eta hizkuntzalariaren aipamen eta guzti.

Ikertzeko dagoela uste dut Euzko Alderdi Jeltzalearen barruan, euskara eta kultura alorretan, seguru asko, egingo zituen txosten, proposamen eta beste. Gipuzkoako Diputazioan, zeinetan baitzen idazkari, nabaria izango litzateke bere eskua ez bakarrik alor juridikoetan, baita kulturakoetan ere. Kontua izan, Probintziaren Jauregian zuela bere



Euskal Herriko Unibertsitateko «honoris causa» doktore izendatukeran (1988-10-03)



Bilbo Irratian, Gernikako bonbardaketaz informatzen, 1937.eko apirilean

egoitza Eusko Ikaskuntzak, kultur erakunde honen lehendakari izan zela Julian Elortza eta, baita Diputazioko ere. Euskaltzaindia ere, Bilboko egoitzarekin txandaturuz, Gipuzkoako Diputazioan gerra aurrean azken ostiraletan biltzen zen, gaurko antzera. Ez dugu uste Leizaola erakunde nagusi bion partaide famatu ziren Azkue, Campion, Urkixo, Elortza eta Apraiz anaiekin, adibidez, harremanik izan gabe egongo zenik. Hiru erakundeon batzar-agiri eta artxiboetan pista jarraitzea litzateke.

Agintari kuturzalea eta kultura sailburu

Diario Oficial Del Pais Vasco/Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren lehen zenbakian, hots, 1937ko urriaren 7koan, 5. orrialdean, honako hau irakur daiteke:

OROAGINDUA. Leizaola'tar Josu Mirena, egin ditun lanak sarigarriak dirala-ta, Euzkadi'ko bitarteko-jaurlaritzaren Zuzentza eta Jakintza zaingoren burukide izendatu det... Gernika'n, milla bederatzieun da ogeitama-seigarrengo urriaren zazpian emana. Lendakaria. AGIRRE'TAR JOSEBA A.

Dekretu hau sailburuen artean lehendabizikoa zen. Ez goaz hemen hain baldintza eskasetan eta hain denbora gutxian «bitarteko-jaurlaritza/Gobierno provisional» horrek zer lan egin zuen azaltzera, ez eta Zuzentza edo Justizia azpizaingoan ere. Kulturako alorrera mugatuko gara. Bi egun geroago agertzen da Agintaritzaren Eguneroko horretan Alfredo Ruiz del Castaño Kultura idazkari orokorraren izendapena eta, hurrengo zenbakian, baina egun berean, Euskal Herriko lehen Unibertsitatearen sorrera dekretua, zeinetan Ruiz del Castaño jaunaz gain, Telesforo Arantzadi, Angel Apraiz, Manuel Usandizaga eta beste jaun prestu agertzen baitira unibertsitatearen oinarriak prestatzeko Batzorde Orokorreko kide. Aipagarria da, bidenabar, nola dekretu berean

Medikuntza Fakultatea —sortu ahal izan zen bakarra— zehazten den Belgika eta Suitzako elebitasuna gogoan izanda euskara irakatsiko den:

osagileak izan oi duten eguneroko jardunari egoki izango zaion eran.

Urriaren 11n izendatu zuen Ildefonso Gurrutxaga Arteder, Artxibategi, Liburutegi eta Erakustokien zuzendari nagusia. Noizbait, norbaitek egin beharko luke azpeitiar historialari honek bederatzi hilabete eskasetan Bizkaiko eta Aiarako ondare artistikoa zaintzeko egin zuen lana, zeren eta harrigarria badirudi ere, izendatu eta biharamunean, Leizaolak, dekretuz, agindu baitzion:

era onatara erri-gudak (gera civil, erdarazko testuan) dakarzkina arriskuetatik beroiek (artelanak, liburutegiak, dokumentuak eta abar) aldentzea lortzen degun (ikus Agintaritzaren 5. zenbakia).

Lege Aholku Emaile Batzordea sortu zuenean, lehen izendatua Bonifazio Etxegarai zumaiar legelari euskaltzaina izan zen. Izendapenarako ez zuen edonor hautatzen, adibidez, Lehen Mailako Irakaskuntzako zuzendari nagusi, Bingen Ametzaga atzerrian hilko zen idazle eta euskaltzain urgazle getxoztarra, hainbeste itzulpen jakingarri egingo zituen: Juan Ramon Jimenezen *Platero ta biok*, Shakespeare, Goethe, Ciceron eta beste.

Oraingo Jaurilaritzaren Kultur Kontseiluak ere badu aurrekari bat 1936ko abenduaren 14an Leizaolak sortu zuen Euskadiko Kultur Kontseilua, sei sailetan banatuta. Era-kunde honek bere ibilera larri eta laburreko emaitzak ikertzea onuragarri litzateke, besterik ez bada, oraingoaren gomutagarri. Urtarrilaren 28an, hogeita hamasei lagune-ko Kontseilua osatzen da, Euskal Hizkuntza eta Literatura sailak, bost kide zituelarik eta ez nolanahikoak: lehena, Raimundo Olabide, gasteiztar josulagun euskaltzaina, «Euskera Jakitunen Batzordekoa» itzultzen du Agintaritzaren Egunerokoak, Tomas Agirre Barrensorero, Bernardo Maria Garro *Otxo-Ilua* eta Esteban Urkiaga *Lauaxeta*, idazle ezagunak eta Jose Altuna, Bizkaiko Diputa-zioako euskara irakasle, baina baita ere idaz-

le, kritikari eta itzultzaile oparoa «Amilgain» eta «Azparren» izengoitiz. Gainontzeko sailetan ere pertsonaia ezagun andana ze-goien, irakaskuntza, musika, arkitektura, pin-tura, zuzenbide eta bestetan, batzuk, gero, zoritxarrez, hormaren kontra edo atze-rrian hilko zirenak eta, gehienak, kartzela-tuak.

Apirilaren 21eko dekretu bidez, Euskal Ira-kasleen Kolegio Ofiziala sortu zuen, arestian aipaturiko Euskal Hizkuntza eta Literatura Sailaren barruan eta garapenez. Zoritxarrez, Eibar, Markina, Durango eta Gernika, hil ho-rretan bertan eroriko ziren Euskadi eta Errepublikako legezko gobernu demokrati-koen kontra armaz altxatu zirenen eskuetan eta ez zuen izan Elkargoa martxan jartzeko



Ume erbesteratuekin, Landesetako Poyanneko barnetegian (1939-03-30)



Parisko Eusko Mundu Biltzarren amaieran, biribilketa alaian, 1956.eko irailean

modurik. Kapitulu hau amaitzeko esan deza-kegu, oroz gain, Leizaola, kulturarekiko ere, edo, bereziki, gobernu gizon izan zela.

Gerra Euskadik eta Errepublikak galdu ondoren, luzaroko erbesteratu beharra izan zuen. 1960ko martxoaren 28an, Donibane Lohizunen, Jose Antonio Agirre lehen Lehendakariaren gorpuaren aurrean Eusko Jaurlaritzaren kargua hartzeko zina egin zuen. Bigarren Lehendakaritza hori sinbolikoa bazen ere, alegia, eremu politikorik gabea, euskal kultura oso barneratua izan zuen beti, bere adierazpen eta lanetan ikus daitekeenez.

Erbestaratuta berriz idazten

Mundu gerra bukatu baino lehen hasia zen berriz idazten. Eguneroko gobernu lan nekerik gabe geldituta zegoenez, bere ikerle-idazle senerako, zorionez, asti ugari ematen zion, ongi aprobetxatuko zuena, erraz lekukotu dugunez.

1944an, «Jon, itxasoko euzkotarra-Amabost eta amaseigarren mendetako Leizaolatar itxasgizonak oroituaz» tituluaz idatzi zituen olerkiek erakusten digute, ez bakarrik gure herri literaturaren ezagupidea, baita euskal neurtitzekiko baliabideena ere. «Donostiaren izen zarra», XIII. mendeko kaskoin olerki bat da lehena. Bigarrena, «Atxarte» izenekoa:



Parisko Eusko Mundu Biltzarreko mahaiburua: Campomanes, Leizaola, Agirre, Garbisu, Gómez-Beltrán eta Nardiz, 1956.eko irailean

Atxartea

Eta itxasoak jotzen dun lekuan
Donostiya ez dago bakañikan,
onen izen zaña bai egoki ere
año karteko zulo ainbestetan.

IZURI dira Deba ta Plentziya,
Bermio, Miañitze, Getariya,
Iye, Donibane-Lohitzun, Getxo,
Bakiyo, Mundaka, Oñañabiya;
Lekeitiyo, Mutriku ta Zumayak,
Elantxobe, Zierbana ta Endayak;
atxartean lagun dituzte Gorlitz,
Oñáru, Oriyo, Zarautz ta Pasayak.

Ibai aunditan eñe bezela
Bilbao ta Bayona or daudela,
euskaldun itxastar eñiyak ditut
bururatuz eran eman onela.

Or dituzute itxasoaren ate,
uñe ta zillañen giltzaren jabe,
bere ontziyekin egin dutenak
gizal ditako itxaso mirabe.


Armañitan nagusitasun ori
erakusñayan zayote etoñi
irudibidez aitan ematia
ari ontziya eta balia oni.

Menditaña, ¿ontziya aukeratzia
arkitze al dezu itxura gabia?
Bidez ez, nolabait zu izatekotan
etxe, sendi ta lanaren zalia.
Ainbeste zuk maite dezun etxia
ta luñak puskatzen ditun goldia
an ditu, ta andik ara eramateko
itxastarñak bear ez aberia.
Aberia mendiko ark ere, bai,
ta orotan aundiyena artzeko zai
burni zoñotza eskuan duala
armañitan ageri izango du nai.

Atxarteak itxaso maite du
t'ordaintzat onek diyo aberastu.
Zer eskontza egiten duten, orañ
ariko gera erakusteko gu.



ta orotan aundiyena artzeko zai...
(Miañitzeko armak.)



Armañitan... ontziya
(Donostiyañen armak.)

Etxepareren «1545-1945 Linguae Vasconum Primitiae»-ren bosgarren mendeurrena ospatuz hamahiru kapitulu idatzi zituen Parisko *Euzko Deia* aldizkarian, euskal lehen liburu horri eskainiz. Jakingarria litzateke, gaur egun ere, zenbat politikok irakurri ote duten liburu hori, nahiz eta Euskaltzaindiak sei hizkuntzatan argitaratu, gaztelania barne, aztertu, Leizaolak bezala, gutxiago, sakonki, seguru asko, berak bakarrik. Eta une honetan baloratu nahi nuke Leizaola «rara avis» bat euskal politikarien artean, alegia, bere kultura

maila handia, errotik intelektual, saiogilea eta ikerlaria.

Literatur kritiko gisa, 1956ko *Euzko Gogoan* bertan, zazpi olerkariri buruzko artikuluek erakusten dute bere maisutza. Hara nortzuei buruz jardun zuen: Orixe, Oxobi, Salvatore Mitxelena, Nemesio Etxaniz, Xavier Dihartze *Iratzeder*, Santi Onaindia eta Etienne Salaberri.

Ezin ditugu guztien aipamenak ekarri, bi hautatu ditugu, ordea. Lehendabizi, oraindik bizi den bakarrarena, hots, Iratzederri buruzkoa:



A. Osorio, D. Martínez Barrio presidentea, M. Domingo eta M. Portela Valladares, Errepublikako gobernuakideekin, Eusko Jaurlaritzaren Parisko Ordezkaritzan

Laphurdiko itxasertzean jaiotako olerkari gazte onek bi olerki sail aundi egin ditu: «Kantikak» eliz-abestiyetan irorogei aña kantika eta, bestetik, «Pindar eta Lanho» izena emanik, bere bizitzan gaztetik asita sortu dituan abeskoi olerkiyak. Onen norberatasuna, berezitasun nagusiyena, gogo-joeran dago neretzat. Gentza zaitzalle, gentza emalle, gentzadun olerkariya degu. Esan liteke itze-kin jostatzen delata ori esatean, «Kantikak» beretan Iratzeder gogo-gudatzaz ari behar izan bait da, bein baño geyagotan... Olerki-yen ibilkeratan Iratzeder'ek berezko jabetza erakusten du. Ez da nolanai ari. Eta neurtiz motz-motxak, ahapaldi oituak, berri edo zar antza dutenak, egoki dabilzki.

Geroago euskal poetarik hoberenatariko bezala aitortua eta euskaltzain izendatua, orain Akademian dekanoa denaz, aspaldian ohartu zen Leizaola.



J.A. Agirrerekin, lehendakariorde bezala erbestean

Bigarren, duela hilabete gutxi mendeurrena eskaini zaion Etienne Salaberry idazleari bere poesiaz 1956an *Euzko Gogoako* kritikan zioena, besteak beste:

Neretzat au (Salaberry) bezin berri zalerik ez degu euskal olertiyan...Alde batetik, Na-farro-behere edo sasoizko gizasemeak jai egiten! Eta orrekin josita dakarkigusa! Bernanos'en eta Claudel'en gogo astinduetan dabillega olertariya esango nuke.

Bada hirugarren kritika bat, 1970eko *Euzko-De-yan* idatzi zuena, Jean Haritschelharren *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun* liburuaz, alegia, bere doktorego tesiaren ondorio zenaz:



Agirreren gorpuaren aurrean, Lehendakari kargua zin egiten, Donibane Lohizunen (1960-03-28)

Oraingoan behintzat ez da esango euske-razko olertiya kaxkarra izan danik. Aspaldi ontan, Haritschelhar bera ortan eragille bizkorrenetakoa izanik... igarotako mende-tan olerki eta olerkari zarrak benetan ma-mitsu arkitzen ditugu (beragandik).

Hiru artikulu hauetan, Leizaolak nabarmen-tzen du, bere garaiko Hegoaldeko gutxik be-zala, zer ezaguera zuen Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoko olerkari hauez eta bestez.

Aldizkari berori da, bestalde, beste saio uga-riren idaz kokagunea, hala nola, ia frankismo-aren amaieran, 1971-1973 bitartean argitara-tutako *De revolutione* saio filosofiko-politikoak.



Parisko Jaurilaritzaren Ordezkaritzan

Norbera bat etorri ala ez, besterik da, sakon-ki aztertzen ditu gaiok.

Azkue euskalari handia hil eta berehala, 1951ko azaroko *Alderdi* aldizkarian «El Abrazo de Sabino y Don Resurrección» ar-tikulu interesgarria idatzi zuen, biekiko bere atxikimendu, ezagutza eta miresmena aitor-tuz. Bost urte geroago, baina kasu honetan *Euzko-Deyan*, Euskal Akademiaren sorrerako beste euskaltzain bati, Zuberoako orde-zkariari, Pierre Lhanderi ekaini zion hilberri txostena zinez irakurgarria, ez bakarrik bere ezagutza-harreman pertsonala azal-tzen duelako, baita ere bere euskalaritza la-nak, *Dictionnaire basque-français* argitalpen mardul eta beste irakurleari zehazki deskri-batzen dizkiolako, ahortzi gabe josulagu-naren eliz oratoria, irrati saio eta Parisko «banlieu» delakoan egindako ekintza so-zialak.

Euzko-Deya aldizkarian bertan frantsesez ida-tzitako artikulugintza ere ez da txantxeta-koa, dozenatik gora, gutxienez, gehienak po-litikaz, baina baita zuzenbideaz eta historiaz ere.

Beste artikulu asko ere aipatuko genituzke, baten bat azpimarratzearren «Urge ocupar-se de los estudios históricos vascos», Bilbo eta bere «hinterland» delakoari eskainiak, Parisen 1956an egin zen Euskal Mundu Bil-tzarrean izan zuen partaidetza ere ezin dugu ahantzi.



Rafael Caldera, Venezuelako Diputatu Ganberako buruarekin, gero Errepublikako Presidente izango zenarekin



Okzitaniako Tolosan, Paulino Gómez sailburuaren ehorzketa zibilean hizlari (1963)



Bitoriano Gandiagari Agirre Saria ematen; ezkerrean, T. Monzón eta eskuinean, Aita Anasagasti

Leizaolaren liburugintza. Sei liburu Euskal Literaturaz

Buenos Airesko Ekin argitaldarian sei liburu gotor idatzi zituen, honako izenburuekin: 1. *Estudios sobre la poesía vasca*, 1951; 2. *La crónica en la poesía popular vasca*, 1961; 3. *1808-1914 en la poesía popular vasca y otros estudios*, 1965; 4. *Los romances vascos (Üskal khantoriak) y sus relaciones con reliquias literarias de la prehistoria*, 1969; 5. *Acontecimientos del siglo xx y su influencia en la poesía vasca*, 1974; eta 6. *El refranero vasco antiguo y la poesía euskérica*, 1978. Sei liburu hauetan agertzen duen gure literaturaren ezagutza izugarria da. Lekukotasunik hoberena, kapitulu nagu-

sien aipamena delakoan, hara hor, zenbaki ordena berean:

1. «La poesía euskérica antigua y moderna», «Análisis de obras vascas en verso», «Relaciones entre la lírica de los trovadores y la poesía euskérica», «La música como vehículo de las relaciones de las dos poesías»; 2. «La crónica en la poesía popular vasca», «Las cinco poetisas vascas», «Oihenarte (1592-1667) y la métrica vasca»; 3. «El ciclo revolucionario-napoleónico en la poesía popular vasca: la guerra de la Independencia española», «La crónica deportiva en verso a mediados del siglo XIX», «La poesía latina de los tiempos carolingios y la euskérica», «Notas sobre el endecasí-



Gernikako Arbolaren pean, 1974.eko Aberri Egunean

labo en la poesía vasca y sobre la métrica de Etxepare»; 4. «Los romances vascos al correr de los siglos», «El género», «La versificación y el ritmo en los romances», «Parentescos antiguos»; 5. «Dos poetas populares: 1 Zapirain, 2 Jel-orde», «Dos poetas de letras: 1 Montzon-Olasoneneko, 2 Iratzeder, el monje», «Visión de conjunto»; 6. «El refranero vasco antiguo», «Lírica y épica en los refranes vascos antiguos», «Didáctica y humorismo en los proverbios antiguos», «Figuras, motivos, estructuras observables en el Refranero antiguo y la poesía euskérica», «Didáctica y humorismo en el Refranero antiguo y la poesía euskérica».

Gainontzeko bere liburugintzan titulu hauek aipa daitezke: *Conversaciones sobre José Antonio Aguirre* talde lanean-Bilbao, 1983; *Contribución de los vascos a la formación y a la ciencia del derecho*-San Sebastián, 1935; *Doroteo de Ziaurriz: Presidente del Euzkadi Buru Batzar 1935-1951*-Bilbao, 1985; *La frontera vasca contra moros*-Bilbao, 1937; *Líneas generales de la formación de la economía vasca en la historia hasta hoy: constantes y variables para la economía vasca*-Caracas, 1962; *La marina civil vasca en los siglos XIII, XIV y XV*-San Sebastián, 1984-1988. Zerrenda aberatsa, gai desberdinez osatua, politikaz landa, ekonomiaz, historiaz nahiz zuzenbidez.



Parisko Jaurlaritzaren Ordezkaritzako ateak ixten (1979-12-15)

Bidegileak bilduma honen xedeari hurbilen lotzen denera mugatuz, *La frontera vasca contra moros* —noiz eta 1937an argitaratua!— hautatzea da bidezkoena, zeren eta historiaz landa lau kapitulu hauek eskaintzen baitizkio euskarari: «El euskera, lengua viva en la frontera contra los moros (I), (II)», «El euskera en la Rioja», «El euskera, lengua viva en la Rioja». Hitzaurrean honako hau dio:

El presente es un trabajo monográfico, de los que he esbozado bastantes como preparación de un Manual de Historia Vasca cuya redacción emprendí hace muchos

años... Mi intención era editarlos nuevamente con anotaciones de fuentes y autoridades. Las circunstancias de la guerra actual impiden realizar mi deseo.

Liburu honetan Erdi Aroko antroponimo, patronimo eta toponimo ugari aztertzen ditu, bakoitzaren erreferentziak zehaztuz, batzuetan inoren aipua beregaratuz:

La toponomástica, que ha de ser —opino con Eleizalde— el más importante de los campos de investigación de orden científico que crea la subsistencia del euskera, es mucho más elocuente.



F. Carranza, Jauriaritzako ordezkaria Venezuelan; J. Bonet, katalan senataria; J. M. Leizaola eta J. Pujol, Hotel Carltonen (1979-12-15)



Eusko Kontseilu Nagusiko kideekin, Gernikan (1979-12-16)

Edota mairuen mugan izandako herrixka baten adibidea:

Además, ya vimos que entonces había nombres como Morukuri (*¿uri?* de los moros o del moro?) que usaban gentes allí residentes.

Edota zenbatzearen ezaugarri:

Con este motivo (*ulli-uri* hitzen Erdi Aroko aipamenez ari da) hago figurar en el

adjunto mapa por puntos los lugares en que he observado la existencia de nombres de Municipios o entidades de población de importancia, compuestos con esa voz euskérica. El número total de nombres examinados resulta ser mil novecientos trece.

Egile musulman eta kristauen erreferentziak maneiatzen ditu arabieraz, latinez nahiz erromantzezko testuetatik euskal aztarnak atereaz.

Azkenerarte lanean

Azken urteak arte etenik gabe lanean aritu zen. Diktadorea hil eta gero, adibidez, 1977an, *Lekuona'tar Manuel jaunaren omenezko* II. Tomoan, «Oyartzuarren oyarztuna» izeneko idazlana, zeinetan egileak agertzen duen metrikaz izugarrizko erudizioa, hasi erromatar garaiko Prudencioaren latinezko poesia, Don Manuelen *La métrica vasca*-n segi, gero, okzitaniera, nafar erromantze, gaztelania eta euskarazko bertsoak aipatzen dituelarik.

Urte berean, Leopoldo Zugaza argitaldaria, Durangon, kaleratu zuen bigarrenagoz, *Diario Oficial del País Vasco/Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*. Eta nork egingo hitzaurrea, Leizaolak berak, bere euskaran. Hara hor pare bat pasarte:

1936'garren urtean egun batetik bestera euskera agintari-izkeratzat oso-osoan jartzea etzan zeregin txikiya. Euskera etzala onelakoetan beñere sartu esan diteke. *Egunerokoa* nere eskuetan jarri zuten; ondo dakit ba ori nola sortu zen. Nik neronek euskeraz osatu nituan lenengo eta bigarrenago *Egunerokoak*. Horrela sartu nituan «Agintaritzza», «Oroagindua», «Zaingo» eta legetzaren beste itz batzuek. Nundik aterata? Esanbearrik ez dago nere «Oroagindua» laphurtarretik arturik eta «Zaingo» nik aspalditik Zuberoko Lege-Zarrean irakurriya neukalako...

Eta honela sinatzen du bere eskuz, «Leizaola'tar Josu M. Lendakariya. Euskaldunen Iparraldetik, 1977'garren Urrilla'ren 31'n».

Bazekien Lehendakari zaharrak Euskadi eremu politikoa zela, baina, Euskal Herria, Zuberoratik Arabarainokoa euskaldunontzat.

1980ko martxoan lehen Eusko Legebiltzarrean parlamentari hautatua izan zen. Tarte laburra izan zen, kontuan izan 84 urte zituela, baina batzorde bileretan parte hartu zuen. Irailean bere aulkia utzi zuelarik, omenaldi hunkigarria egin genion, ez bakarrik taldeki-deek, baizik eta Mahai osoak eta bozeramaile



K. Garaikoetxea lehendakariarekin,
Zilarrezko Euskadi Saria jasotzen (1983-01-20)

guztiak. Oroitzen naiz bazkalordu guztian, alboan izan bainuen, euskal historiaz, hizkuntzalaritzaz eta literaturaz jardun genuela, azken agurreko mintzalditxoan han zeuden gehienak bere jakituriar harriturik utzi zituelarik.

1984ko azaroaren 30ean, Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuenean, lau atzerritar jakitun: Jacques Allieres, Nils M. Holmer, André Martinet eta Terence H. Wilburb eta bi bertsolari handi Iñaki Eizmendi *Basarri* eta Balentin Enbeita, hots, berak hain maite zituen hizkuntzalaritza eta herri literaturan euskararekiko gailendutakoen artean. Berak egin zuen guztien izenean esker oneko agurra hurrengo hileroko batzarrean, San Tomas egunean, diplomen jasokeran, hain etxe-ko zuen Gipuzkoako Diputazioaren jauregian.

1987ko maiatzaren 29an, Euskaltzaindiak Toribio Etxeberria, politikari sozialista, idazle eta euskaltzain urgazlearen mendeurrena Eibarko udaletxean ospatu zuenean, hitzaldietariko bat Leizaolari agindu zion eta zintzoki erantzun ere. Benetan mintzaldi trebe, xamur eta oroitzapenezkoa, tamalez, *Euskera* agerkarian bildu ez zena. Agian, hil baino urte eta erdiko lehenagoko emaitza hori bere azken fruitua izango zen.

Politikan herrigizon, gure arteko politikarien artean ohi ez den euskal kultur maila eta ezagutza handiarekin. Gainera, kulturarentzat gobernu-gizon inor izatekotan Jesus Maria Leizaola izan zen Euskadiko Agintaritzan. Euskararekiko ikerle, idazle, euskalari ere esango genuke zentzurik zabalenean.



A. Santi Onaindia
idazlearekin, 1984.eko
irailaren 8an, Laudion



J.A. Ardanzak Lehendakaritza hartzean, J. Astigarribia eta G. Nardiz lehen Jaurlaritzako sailburuarekin batera, 1985ean

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- *Leizaola familiari*
- *Abertzaletasunaren Agiritegiari*
- *Obras completas de Jesus Maria de Leizaola. Sendoa argitaldaria - Donostia. 1982-1985*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2004ko azaroa

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde (g. b.)

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2176-3 (Lan osoarena)
84-457-2179-8

L.G.: BI-2.958-04